

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0
positibo berri
2312
positibo guztira*

285
hildako

52
ospitalizatuta

NAFARROAN

81
positibo berri
8436
positibo guztira

503
hildako

125
ospitalizatuta

*Hernanin 55 Astigarragan 20

Sendatuak EAEn: 16.387 Naf.: 4009

Konfinamendu osteko gomendioak luzatuko dira Hernaniko nerabeentzat arrisku jarreraren inguruan

Itxialdian droga arinen kontsumoa jaitsi da eta konfinamendua arindu den honetan, hainbat gomendio luzatuko zaizkie Gaztelekutik, bereziki tabakoa edo kalamua erretzea, edo alkohola gutxitu duten nerabeei.

HERNANI UDALA

Hernaniko nerabeek, beste kolektibo askok bezala, konfinamendua etxean pasa dute, goizez ordenagailuaren aurrean ikasten eta, arratsalde, lagunekin mugikor bidez berriketan, nagusiki. Osasun krisiaren ondorioz, astean zehar izan ohi duten dinamika zeharo aldatu zaie, baita asteburuetakoa ere. Aisialdirako ohiturak aldatu dira, eta horrekin lotzen diren arrisku jarrerak ere eraldatu dira.

Hernaniko 12 eta 16 urte bitarteko nerabeek dituzten arrisku jarreraren ikerketa egin zen 2019an. Bertan jasotzen zen tabakoa, alkohola eta droga arinen kontsumoaren inguruko hainbat datu. Jakina da itxialdian, nerabeak, oro har, sustantzia horien kontsumoa gutxitu dutela. Orain, itxialdia arindu den honetan, hainbat gomen-

dio luzatuko zaizkie Hernaniko Gaztelekutik, bereziki tabakoa edo kalamua erretzea, edo alkohola edatea gutxitu duten nerabeei.

Drogen kontsumoaren prebentzioaren lanketa 'Ai Laket!!'-ek
Ai Laket!! Elkarteko kideen laguntzarekin, drogen kontsumoaren prebentzioaren lanketarekin jarraituko da. Lehenengo ekintza maiatzaren 14an egin zen. Hernaniko nerabeen arrisku jarreraren ikerketaren emaitzak gazteei gerturatzeke asmoz. Gaian sakontzen hasteko, instagram bidez hausnarketara bideratutako galdera batzuk erantzutera animatu zitzaizkien.

Gaztelekuko instagramean gazteekin gaur zuzenean solasean, 17:30etan hasita
Gaur, asteazkena, *Ai Laket!!*-eko kide bat izango da zuzenean



Gazteek konfinamendua eta gerorako gomendioak jasoko dituzte alkohola, kalamua eta tabakoa bezalako drogen inguruan.

Hernaniko Gaztelekuko instagram-ean (hgaztelekua) gazteekin solasean. Elkarrizketa 17:30ean hasiko da. *Ai Laket!!* elkarteak drogen kontsumoa murriztera begirako ekintzak egiten ditu. Bertako kide batek nerabeei zuzenean hainbat gomendio luzatuko dizkie.

Itxialdia nola eramán duten ere azaltzeko aukera izango da, eta sortu daitezkeen zalantzak zuzenean galdetu ahalko dira txat-aren bidez.

Aurreko egunetan, gazteek aukera izan dute instagram bidez beraien galderak bidaltzeko. Jasotako galderak *Ai Laket!!*-eko kideei helaraziko zaizkie zuzenean erantzun ditzaten. Guztia modu anonimoan egingo denez, gazteak animatu nahi dira dituzten kezkak azaleratzera eta parte-hartzera. Ezohiko egoera bizitzen ari dira eta denek dituzte galdera asko eta erantzun gutxi. Horregatik, gaian adituak diren gazteak egongo dira zuzene-

neko bidez informazio espezializatua ematen, hausnarketa sustatzen eta gomendioak eskaintzen.

Horretaz gain, ikerketaren aurkezpenak eta laburpena eskuragarri daude udal webgunean, www.hernani.eus euskaraz zein gazteleraz. Etxean nerabeak dituzten gurasoei gonbidatzen zaie ikerketaren emaitzak begiratu eta euren seme-alabekin gaiaz hitz egin ditzaten. **K**

Herriko 'artista txikiek' itxialdian egindako artelanekin egingo da Erribera Kultur Etxeko lehenengo erakusketa

Udalak antolatuta itxialdia amaitzean Erribera Kultur Etxea inauguratzen denean erakusketa batean jarriko dira aurkeztutako lan guztiak.

ASTIGARRAGA KULTURA

Astigarragako Udalak, Herri Eskolarekin lankidetzan, proposamen bat zabaldu die herriko haur guztiei: Itxialdi garaian egindako artelanak aurkeztu, ondoren, Erribera Kultur Etxea

inauguratzen denean, erakusketa batean jartzeko.

Aste asko pasa dituzte haurrek etxetik atera gabe, eta oraindik ere ordu asko eman behar izaten dituzte etxean. Askok dira aste hauetan sormena eta imajinazioa artelanean

bidez garatu dutenak; egunotan horren adibide diren zenbait marrazki eta eskulan ikusi dira etxeetan, leihoetan eta balkoietan.

Bihar egingo da lanen lehenengo bilketa Erribera Kultur Etxean

Udalak eta Herri Eskolak lan horiek guztiak batu eta ikusgai jartzea ekimen polita izan daitekeela uste dute, eta horretara-

ko une aproposa Erribera Kultur Etxearen inaugurazioa dela.

Udalak bihar, maiatzaren 21ean, egingo du lehenengo bilketa bi ordutegitan: 12:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 17:30etara. Datozen hilabetean beste bilketa bat egingo da. Aurkeztu nahi diren lana Erribera Kultur Etxeko (Kontxa Etxeberria plaza) sarrera nagusira eramán behar dira eta Astigarragako Udaletik animatu

nahi dira familiak lanak aurkezttera. «Etxeko txikiak izan daitezela Erribera Kultur Etxeko lehen artistak!».

Udalak jakinarazi zuen uztailean egingo dela trasladoa, egungo kultur etxetik berrira. Baina udazkenera atzeratu dute inaugurazioa, irailera edo urrira. Egoeraren arabera erabakiko dute. Edozein kasutan, irailean ireki nahi dute, Erribera kultur etxea. **K**

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrik eta aseguru etxerik
- * Beilatoekiak
- * Erransketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, korroak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

Hernaniko haurreskola

MATRIKULAZIOA ZABALIK

Online egiteko aukera maiatzaren 21etik ekainaren 8ra, biak barne.

Aurrez aurre egiteko aukera ekainaren 1etik ekainaren 8ra, biak barne.

Sagastialdeberri 2
943 55 29 91

MARI FE

ARRANDEGIA

NAGUSIA 36

943 550 489

GAUR
Temperaturak bizpahiru gradu gora egingo du, batez ere bamealdean eta zonalde honetan aisa gaitutuko dute termometroek 25 °C-ko muga. **Min.13° / Max.26°****BIHAR**
Lanbroa desegin ostein, eguzkia jaun eta jabe agertuko da zeruan eta termetroak 25-30 °C artera igoko dira; kostaldean brisa dela eta maximoak suabeagoak izango dira. **Min.14° / Max.25°****DOBE**
EUSKARA ELKARTEA**LAGUNTZAILEK****Hernaniko Udal****Astigarragako Udal****Donostia****GOZUEK****ARANOKO UDALA****TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353****ELKARTEA****Gipuzkoako Foru Aldundia****DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**

Tamaina haundiko hondakinak jasotzeko zerbitzua berreskuratu da

Aste honetan jarri du martxan Udalak bi hilabetez gelditua egon eta gero. Aurretik deituta asteazkenetan, beraz gaur, atera behar dira.

HERNANI UDALA

bitzua martxan.

Udalak herritarrei jakinarazi nahi die, tamaina haundiko hondakinak jasotzeko zerbitzua bi hilabetez bertan behera egon eta gero, modu progresiboan berreskuratu dela.

Hori dela eta, altzariak edo traste haundiak Udalak jasotzea nahi duenak, aurretik deitu behar du, ohiko moduan, 900 84 00 90 edo 943 33 70 00 telefonora. Hondakinak udal arduradunak emango dizkio zer eta nola egin behar duenari buruzko azalpenak. Hondakinak asteazken gauean atera behar dira, aurretik Udalarekin adostutako lekuan. Beraz gaur jarriko da zer-

Deitu gabe ateratzek 300 euroko isuna ekar dezake Aurretik Hondakin Bulegora deitu gabe hondakinak kaleratu uzteak 300 euroko isuna ekar dezake.

Gogorarazten da Garbigunea ere badagoela martxan eta bertara ere eramane daitezkeela boluminosoak.

Ordezkaritza duten talde politiko guztiek testua adostu dute jokabidea zioriontzeko Hernaniko Udalean ordezkari-tza duten talde politiko guztiek ondorengo testua adostu dute: «Covid-19ak sortutako alarma

egoeraren fase aldaketa berezi honetan, pandemiaren hobe-kuntza uste baino motelago doala argi geratu da. Egunez egun fase aldaketaren harira neurriak etengabe aldatzen ari dira eta herritarrontzat zaila izaten ari da momentuan bete behar diren neurrien berri izatea» diote idatzian.

Udaleko ordezkariak jarraitzen dute esanez: «orokorrean hernaniarrak egoera zail honetan izaten ari diren jokabidea zioriondu nahi dugu eta adierazi gutxiengo dela arauak betetzen ez dituenak.

Edozein kasutan, herritarren osasuna bermatzeko neurriak betearazteaz gain, herritarrek dauzkaten zailtasunak argitzeko Udaltzaingoaren lana balioan jarri eta herritarren eskura daudela gogorazten nahi dugu». **K**

Hirigintza genero ikuspegitik lantzeko herritarren bigarren saioa, bihar

Modu telematikoan, 'http://meet.jit.si/astigarragageneroikuspegitik' estekan hirigintza ordenantza berritzeko gakoak landuko dira.

ASTIGARRAGA UDALA

Bihar hirigintza genero ikuspegitik lantzeko herritarrentzat bigarren saioa antolatuko da modu telematikoan, 18:00etan, <http://meet.jit.si/astigarragageneroikuspegitik> estekan. Saio honetan Astigarragako hirigintza ordenantza berritzeko gakoak landuko dira, hau da,

Astigarragan etxebizitzek, espazio publikoek, eraikinek... izan beharreko oinarritzko baldintza eta ezaugarriak.

Herritar guztion beharrak kontuan hartzea eta bizi-kalitate onena izateko baldintza egokiak jartzea da saio hauen helburua. Herritarrekin lehen saioa, martxoaren 11n egin zen, eta bihar bigarrena egingo da.

Oraingoan, Astigarragako hirigintza ordenantza berritzeko gakoak landuko dira.

Herritar guztion ekarpenak dira beharrezkoak, saioan parte hartzeko ez da hirigintzari buruzko inolako jakintzarik eduki behar. Herritar gisa, badakigu gure eguneroko erosketak egiteko, zaintza lanak aurrera eramateko, herrian erraz, denbora gutxian eta seguru mugitzeko... zer behar den eta zer ez; horretarako, espazio bakoitzak izan beharreko ezaugarri eta baldintzak zehaztu behar dira. **K**

Ipuinaren ordua Apaxirekin eta bideo-dantza Iglesias eta Labaienekin

18:00etan hasiko da gaur ipuin kontalaria Hernaniko Udalaren YouTube kanalean eta webgunean eta 19:30etan, etzi, bideo-dantza.

HERNANI KULTURA

Covid-19ak eragindako alarma egoera honen aurrean, kultur ekitaldirik ezin da egin Biterin. Hori horrela, Hernaniko Udalak, kultur programazio berezi bat antolatu du, maiatz eta ekaina bitartean egiteko, «kultura hernaniarren etxetara eramango dugu» azpimarratu du Udalak.

Izan ere, kultur emanaldiak online ere eskaini daitezke, eta gaurkoan, Apaxi ipuin kontalariaren ordua izango da; 18:00etan eskainiko du online kontaketa. Etzi, ostiralean, bideo-dantza ikusteko aukera ere egongo da, Arantza Iglesias eta Jokin Labaienen eskutik, arratsaldeko 19:30etan

Bi modu daude ikusteko, alde batetik Hernaniko Udalaren YouTube kanalean: <https://labur.eus/X4K7o> eta beste alde batetik, Hernaniko Udalaren webgunetik: <https://labur.eus/X4K7o>.

Maiatzeko azken astean, Morau eta Xabi Solano Hileko azken astean, bi emanaldi egongo dira, poesia Morauk eginda eta musika, Xabi Solanoren eskutik. Ekainean zehar emanaldiak ere egongo dira ekainaren 19ra arte. **K**

AEKn aurrematrikula zabalik dago

URUMEA EUSKERA

Datorren ikasturteko agiteko aurrematrikula dago AEK euskaltegietan. Aurrematrikula egiteak abantailak baino ez ditu %5eko deskontua izango da datorren ikasturteko ikastaroan aurrematrikula egiteagatik eta ordainketa epe malguagoak. Izenematea irekita dago eta uztailearen 8ra arte egin daiteke on line <https://www.aek.eus/aurrematrikula/> estekan. Egoerak baimentzen badu, aurrez aurre egiteko aukera izango da.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE**

*Zure keinu ta zure irripa,
zure lantza, zure aipu...
hainbeste deitu zenion lurra
bere baitan hartu zaitu.*

Gil-Insauti eta Insauti-Jiménez familiak

Hernanin, 2020ko maiatzaren 20an

**JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE**

Betiko izango zaitugu gogoan

ARROZPIDE-MADINA FAMILIA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 20an

**JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE**

*Aldatasunaren iturritik
edan genuen elkarrekin
oroimenean izango zara
zu beti gurekin.*

BETI LASAI KOADRILA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 20an

**JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE**

'Mitxirrika'

Besarkada haundi bat familiari

IMANOLEN LAGUNAK

Hernanin, 2020ko maiatzaren 20an

**JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE**

'Mitxirrika'

*Santa Ageda bezperan, ahots;
San Joan errondan, hats;
Urte Zaharreko errondan, hauspo.
Beti, bihotz eta arima.
Milesker ereindako guztiagatik.*

HERNANIKO OHITURA ZAHARRAK TALDEA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 20an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**